



L'Atelierreko 500 dantzari batuko dira Dantzaren Egunean, zapatuan

Dantza • Landako Gunean egun osoko egitaraua prestatu dute diziplina anitzeko emanaldiekin. • **18**



Zaldibartik Saharara, elkartasuna eta zaintza

Ana Maiztegi eta Amagoia Iturralde Ahmed Salama Salahi ume sahararren etorrerak batu zituen. Maiztegi-Abad familia zaldibartarrak Ahmed harreran hartu zuen giltzurrun transplantea egiteko 9 urte zituenean. Iturralde bere irakaslea izan zen. 21 urteaz Ahmeden osasun egoerak okerrera egin zuen eta hil egin zen. Zailtasunen gainetik, emakume bi hauek saharar herriagaz duten konpromisoak aurrera jarraitzen du. • **2-3**



Hitzez eta Ahotsezen 9. irakurraldi girotuak umorea izango du ardatz

Literatura • Hitzez eta Ahotsezen bederatzigarren edizioak umorea du ardatz. Maiatzaren 5ean izango da irakurraldi girotua, 17:00etan hasita. Aurten, Durangoko Benita Uribarrena parkean egin gura dute ekimena. • **19**

Quattro Clavosen itzulera




Musika • 23 urteren ondoren, Quattro Clavos talde zaldibartarrak azken kontzertua emango du hamabi urteko ibilbidea itxeko; Ondarroan joko dute, gaur, Beikozini aretoan. • **18**



Yaiza Romero, apnean espezialista

Zornotza • Yaiza Romero Espainiako azpitxapelduna da urpeko arrantzan. Apnea lantzen du. • **20**



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

ESPEZIALIZAZIOA

- Industria-mantentzearen digitalizazioa

Masterra
900 ordu

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 8tik 26ra arte





**Ana Isabel
Maiztegi Onaíndia**

Ahmeden Zaldibarko ama

ZALDIBAR | 1948

**Amagoia
Iturralde Berasaluze**

Ahmeden irakaslea

ABADIÑO | 1960

Zaldibartik Saharara, elkartasun eta zaintza sare baten testigantza

Ana Maiztegi eta Amagoia Iturraldek garrantzi handia izan zuten Ahmed Salama Salahi ume sahararraren bizitzan

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Ahmed Salama Salahi ume sahararra Zaldibarko familia baten bizitza aldatu zuen orain 21 urte. 2002an, giltzurruneko gaixotasun batez etorri zen Durangaldera uda pasatzera, eta Zaldibarko familia batean geratu zen. Giltzurrun transplantea egin zioten txikitan, eta pandemia sasoian beste transplante baten zain zegoen. Bat-batean, bere osasun egoerak okerrera egin zuen eta hil egin zen. Kolpe gogorra izan zen bere familia eta lagunentzat, bai Zaldibarren eta baita Saharan ere. Urtebete pasatuta, Ahmeden bizi-

tzan garrantzitsuak izan ziren emakume bi elkartu ditu ANBOTOK. Ana Maiztegi, haren Zaldibarko ama, eta Amagoia Iturralde irakaslea. Ondo gogoan dituzte haregaz pasaturiko momentuak, baita saharar herriagaz jositako elkartasun sareak ere.

Zelan gogoratzen duzue Ahmed?

Ana Maiztegi: Guretzat seme bat izan da. Oso formala. 2002an etorri zen gure etxera. Aurretik ezagutzen genuen, Saharara egin-dako bidaieetatik, bere arreba Glana gugaz egon zelako Uda Bakean Bizi programaren bitartez. Behin

harreran hartuta, hemengo eskolan hasi zen.

Amagoia Iturralde: Eskolara etorri zenekoa ondo gogoan dut. Mutiko txikitxo zen eta oso kolore eskasa zuen, gris kolorea nabaritu nion. Atentzioa eman zidan. Gero infartua izan zuen eta zerk eragin zion ulertu genuen. LH 3. mailara etorri zen eta sasoi hartan beste irakasle bat zuen. Hurrengo urtean nire ikaslea izango zela banekienez, urte hartan Saharara bidaian lagundu nion Anari, bisita egitera. Anak eta biok ez genuen elkar ezagutu ere egiten. Bere familia eta errealitatea ezagutu gura nituen. Beste bidaia askoren hasiera izan zen hori. Hogeitabat bider joan naiz hara.

Zelan sortu zen Ahmed harreran hartzeko aukera?

A.M.: Bere arreba Glana lau urtean gure etxera etorri zen uda sasoian. Haren amak Tinduferra (Aljeria) joateko gonbita egin zigun. Ahmedek anaia biki bat zuen eta txarto zegoen. Nire seme Robertok ere Ahmeden anaia ekartzea gura zuen, baina ez ziguten utzi. Uda Bakean Bizi programagaz etorriko zela pentsatu genuen, baina tarte horretan hil egin zen. Ondoren, amak Ahmed hartzeko eskatu zidan, Glana ez zetorrelako gehiago. Momentu

Ahmeden heriotza oso bat-batekoa izan zen. 17 urtean giltzurruna ondo izan zuen, baina bigarren transplantearen zain geunden

hartan, Ahmedek 9 urte zituen. 29 urteagaz hil zen.

Osasun aldetik, zailtasunak izan zituen.

A.M.: Zaila zen, baina berak ondo

eramaten zuen. Laguntza handia izan dudala esan behar dut. Ospitalean, mediku guztiak oso ondo portatu ziren. Eurena izango balitz legez tratatzen zuten.

A.I.: Ingresoak, etxean diarisia... gauza asko zaindu behar zen, eta Ana eta Elu, Anaren senarra, oso inplikaturik zeuden. Eluk oso hartu-eman polita zuen Ahmedegaz.

Zelan integratu zen hemen?

A.M.: Nire semeak anaia balitz legez hartu zuen. Kostatu egin zitzaion Eluri eta bioi aita eta ama esatea. Ospitalean, erizain batek



Ahmed, ezkeretik hasita bigarrena, Zaldibarko familiagaz, Durangaldera etorri zenean.

Momentu honetan gerran daude, eta andra eta gizon asko frontean daude. Janaria ere falta da. Egoera geroago eta larriagoa da

Ana Maiztegi, Ahmed eta Elu Abad.

MGEP

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak **Berria!**

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Mekatronika Industriala

Automatizazio eta Robotika Industrialak

Espezializazio ikastaroa

Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

 Oñati gestio
heziketa

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

Salmenten Kudeaketa

Administrazio eta Finantzak

#LanerakoGertu

Eman izena!

MGEP: 664298683 // 664298704

Oñati gestio heziketa: 943718009

INSKRIPZIO-DATAK: Maiatzak 8tik 26ra

mondragon.edu/lanbideheziketa



Herria elkarteak animazio eskaintza zabalagaz ospatuko ditu Maiatzaren Leheneko jaiak

Auto klasikoen erakusketa, erromeria, bertsolariak eta magia saio bat izango dituzte

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBIZKAR

Durangoko Herria Auzo Elkar-
teak urteroko jaialdia antolat
du Maiatzaren Lehenaren harira.
Herria tabernaren bueltan egingo
dituzte ekintzetariko batzuk, eta
Otamotzena parkean beste hain-
bat. Zapatu honetan, apirilak 29,
auto klasikoen 4. elkarretaratzea
egingo dute, 30 urte baino gehiago
dituzten ibilgailuekin. 11:30ean,
30 kilometroko ibilbideari ekingo
diote Durangotik. Bueltan, 12:30
inguruan, luntxa egongo da. Potx
magoak umeentzako magia saioa
egingo du eta DJ Ainhoa musika-
gaz girotuko ditu auzo inguruak.

Bertsoak eta azoka

Hurrengo egunerako, domeka-
rako, bertso emanaldia antolat
dute Herriak eta Durangoko bertso
eskolak. Gorka Pagonabarraga, An-
der Sarriugarte eta Ixone Asategi
Herria tabernaren ondoan egongo
dira bertotan, 12:30ean. Egun
berean, Artisautza Azoka egingo
dute, 11:00etatik 15:00etara. Ho-
nako postu hauek egongo dira:
Warmi lurra, Puochinah, Montse,



Dantza saio bat, 2019ko Maiatzaren Leheneko jaien bueltan.

Timba pirata, Eneko Arietaorbe,
Kukupraka, Dzemento, Alaiu Con-
cept, Maimai sorkuntzak, Aiama
koadernoak, Gorakat, Vellea, Bo-
txinche, Arima Basque Brand, Mi
casita del muérdago eta 7 turban-
tes. Arratsaldetik aurrera musikak
girotuko du jaia. DJ Kaktus egongo
da 17:00etan, eta Old Berri Band

taldearen erromeria 21:00etan.
Bestalde, astelehenean, bigarren
eskuko azoka, Kriskitinen dantza
saioa eta tute txapelketa egongo
dira Katatzka eta Mugarra tabernen
arteko parkean. Egitarauko zehaz-
tasun guztiak kontsultatu gura
dituenak anboto.org atarian dauka
horretarako aukera.

Durangoko EH Bilduk bere hautagaitza aurkeztu du

"Durangarren ongizatea hobetzen" jarraitu gura dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EH Bilduk bere hau-
tagaiak zeintzuk izango diren
argitu du martitzen honetan.
Ima Garrastatxu, egungo alkatea,
izango da zerrendaburua. Koa-
lizio subiranistak dio "orain lau
urte hasitako aldaketa politikoan
sakontzen" jarraitu gura duela,
"arreta berezia" ipinita "susperral-
di ekonomikoan, etxebizitzan eta
arloan sozialean". "Ondarea errespe-

tatzen eta zaintzen dugunak gara,
gizarte zerbitzuak defendatzen
ditugunak, eta durangarron eko-
nomia modu arduratsu batean
kudeatzen dugunak", esan zuen
Garrastatxuk martitzenean Ez-
kurdin egindako ekitaldi politi-
koan. EH Bilduk dio "ekonomia,
kirol, kultura eta gizarte arloan
ibilbide luzea duten" herritarrek
daudela hautagaitzan, Durango-
gaz "konprometituta" daudenak.



Martitzenean ekitaldi politikoa egin zuten, Ezkurdin.

DAFAk indarkeria matxista prebenitzeko eta artatzeko "zerbitzu integrala" landuko du

DURANGO • E.H.

DAFA Durangoko Autodefentsa
Feminista Asanbladak iragarri du
indarkeria matxista prebenitzeko
eta biktimak artatzeko "zerbitzu
integrala" ipiniko duela martxan.
Herrian erantzunen "integritasu-
na bermatzeko" zerbitzua izatea
gura dute, "beste eredu bizigarri
eta osasuntsuagoak" sortuko di-
tuenak. DAFAk azaldu du zerbitzu
hau Udaleko Berdintasun Sailagaz
lantzen dabiltzala. Prozesua "esku-
rik esku josten" dabilta momentu
honetan. Zerbitzua uda osterako
martxan egotea gura dute.



DAFA Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladako kideak.

Antso Estegiz berritzeko lanak lizitaziora atera dituzte

Udalak lanak udan hastea gura du. Enpresa interesatuek
maiatzaren 22ra arte aurkeztu ditzakete proiektuak

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak lizitaziora
atera du Antso Estegiz kalea ber-
ritzeko lehenengo fasea, 756.449
euroko aurrekontuagaz. Kalea
"oinezkoentzat berreskuratzea"
izango da lanen helburu nagusia.
Aparkalekuan gorabeherarik
egon ez dadin, udalak 100 plazako
aparkalekua egin gura du Larra-
soloetan. Obrek zortzi bat hile
iraungo dute.



Urbanizazio lanen infografia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko apirilaren 28a
21. urtea - 933. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta
Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
Derteano Bilbao, Maialen Zuazubizar Gallastegi,
Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Herriaren Eskubidea alderdiko zerrendagaiak.

Herriaren Eskubideak prest dauka bere hautagaitza

Jorge Varela izango da burua. "Zerbitzu sozialak, auzoak eta ondarearen berreskurapena indartu" gura dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Durangori dagozkion kontuak Durangon erabakitzen jarraitzea" gura du Herriaren Eskubideak, "erabakiok gorago dauden Bilboko, Gasteizko edo Madrilgo egiturek inposatu barik". Taldeak "alderdi independente" lez aurkeztu du bere burua, eta azaldu du Durangoko "auzoetan, zerbitzu sozialetan eta

herriko ondarea berreskuratzeko lanetan" eragingo duela. Hauteskondeei begira, "2015ean zuten besteko ilusioa dutela" esan dute Herriaren Eskubideko kideek. Zerrendaburua egungo zinegotzi Jorge Varela izango da. Hautagaitzan mugimendu sozialetan dabilzan herritarrak batu dituztela azpimarratu dute.

Garain umeentzako udalekuak egingo dituzte, uztailaren 3tik 21era bitartean

GARAI • E.H.

Herriko umeei aisialdi programa bat eskaintzeko asmoz, Garaiko Udalak udalekuak antolatzen dabilela jakinarazi du. Jadanik zabalik dago udalekuetan izena emateko epea. Interesatuak izena emateko orria bete eta tasa ordainduta dagoela dioen egiaztagiria aurkeztu beharko dute udal-txean.

Izena emateko prezioak

Hauetxek dira udalekuetarako ipini dituzten inskripzio prezioak: 60 euro lehenengo seme-alabaren kasuan; 50 euro bigarren seme-alabaren kasuan, eta 20 euro hirugarren seme-alabatik aurrera. Udalekuak uztailaren 3tik 21era egingo dituzte. Izena emateko epea maiatzaren 10ean amaituko dela azaldu dute prentsa oharrean.

'Elorrixon dendarik denda' kanpaina maiatzean egingo dute, hilaren 1etik 31ra

lazko kanpainetan lege, bonu fisikoaren ordez, merkatariek aplikazio informatikoa erabiliko dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Elorrixon dendarik denda' izena duen kanpaina maiatzaren 1ean hasiko da, eta hilaren 31n amaitu. Elorrioko Udalak 20.000 euro ipiniko ditu herriko merkataritza eta komertzio txikiak sustatzeko. Bonuak 18 urtetik gorako pertsonentzat izango dira eta bakoitzak bonu

bi trukatu ahal izango ditu. Bonuekin, 30 euroko erosketa batengaitik 20 euro ordainduko dituzte herritarrek.

Erosketak komertzio bakarrean edo bitan egin ahalko dira; betiere, kanpainara atxikitutako negoziak badira. Guztira, Elorrioko 32 komertzio atxikitu dira kanpainara.



Elorrioko merkatariek ekimenaren aurkezpena.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

"Ikasten ari den norbaiti, duda barik, formazio Duala egitea gomendatuko nioke"



Iker Zubicaray Zabala
(Garai)

Mekatronika Industrial
Goi Mailako Heziketa Zikloa
(GMHZ)

Denerik ikasteko aukera ematen duen Heziketa Ziklo bat egin nahi nuen eta horregatik aukeratu nuen Mekatronika. Nire osabak Mondragon Goi Eskola Politeknikoan ikasi zuen eta beti oso ondo hitz egin izan dit MGEPi buruz; gainera, nire lagun batek ere ziklo bera ikasi zuen bertan eta hark ere animatu ninduen.

Niretzat ziklo hau ikasteak izugarritzko aukera suposatu du, industriaren hainbat arlo ikasteko aukera izaten ari naizelako: mekanika, programazioa, elektrizitatea, antolaketa, pneumatika eta hidraulika, besteak beste. Gainera, lehenengo mailan, apirilaren, Electricidad Anboto enpresan hasi nintzen praktikak egiten. Enpresa honek industria alorrean hainbat enpresentzako instalazio elektrikoak, mantentze elektrikoak eta programazioa lantzen ditu bereziki. Praktika hauei esker, klasean ikusitako hainbat ikasgai praktikan jarri nituen eta errealitatean zertarako erabiltzen diren ikusi nuen.

#LanerakoGertu

Ekainean bukatu nituen DUAL OROKORRA praktikak eta bai enpresa eta bai ni gustura ginenez ekainaren 20an DUAL AURRERATUA praktikak hasi nituen, jarraian. Dualaren hasieran askotariko lanak egiten egon nintzen eta, ondoren, Pierburg enpresan mantentze lanak egiten hasi nintzen.

Lan hauek klaseko atal askorekin erlazio handia izan ohi zuten. Adibidez, sistemen integrazio ikasgaiarekin, eta elektrizitate eta pneumatika ikasgaiarekin. Egindako lanen artean honako hauek zeuden: muntaia lerroen mantentze prebentiboak, parametro eta kamera askoren doikuntzak, programetan aldaketak edo instalazio txikiren bat egitea/kentzea. Elektrizitate nahiz programazioari buruz eta orokorrean lan munduari buruz ere asko ikasi dut. Orain dela gutxi, otsailaren 21ean, AIC-n hasi nintzen muntaia lerro berriak egiten eta han egonda eskaini zidaten programatzailer moduan lan egitea. Orain, 2 aste daramatzat bertan.

Azkenik, esan nahiko nuke Duala egiteak asko erakutsi didala bai atal pertsonalean eta baita lan arloan ere. Bizitzari buruz asko irakatsi dit, nire kideei esker lan munduari buruz asko ikastea lortu dut eta, horrekin, argi edukitzea zer den lortu gura dudana bizitza laboralean eta pertsonalean. Ikasten ari den norbaiti, duda barik, formazio Duala egitea gomendatuko nioke; asko ikasteko aukera da, baita esperientzia hartzekoa ere, eta lana topatzeko aukera oso ona da.

ATE IREKIAK: Maiatzak 6 11:00

Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704



"Hau gelditzea lortzen ez badugu, egoera penagarri batera helduko gara"

Elorrioko egoitzako langileak zainketa sistemaren eraldaketa prozesu batean daude. Ahoztar Zelaietak horren gaineko berbaldia emango du gaur, 12:00etan, plazan



Esther López Angulo, Elorrioko egoitzako zerbitzari-garbitzailea.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Irailean, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri zuen lanak egingo zituela Elorrioko egoitzan, berau biziki-

detza unitate bihurtzeko. Hau da, lanak eginda egoitzak bizikidetza unitate bi izango ditu. Langileak kexu daude aldaketagaz. Hainbat

lanpostu desagertuko da eta gainerako beharginen lan egiteko modua aldatu egingo da.

Elorrioko egoitza bizikidetza unitate bihurtuko dute, baina ez zaudete pozik aldaketagaz.

Ados gaude egoitzan lanak egiteagaz, baina ez lan horiek ekarriko duten aldaketagaz. Momentu honetan, zainketa sistemaren eraldaketa prozesu batean gaude eta horrek eragin zuzena izango du, bai langileengan eta baita egoiliarrengan ere. Aldaketak zainketa zerbitzuaren gainbehera ekarriko du eta emandako zainketa-kalitatean eragin zuzena izango du.

Zer aldaketa dakartza honek guztiak?

Alde batetik, aldaketa honegaz hamalau ohe publiko desagertuko dira eta gehienez 50 lagun bizi ahalko dira gure egoitzan. 50 egoiliar hauek bizikidetza unitate bitan banatuko dituzte. Eta bizikidetza unitate bakoitzean 25 pertsona egongo dira. Bestetik, Elorrioko egoitza bizikidetza unitate bihurtuta, hainbat lanpostu suntsituko dute: zerbitzari-garbitzaile postu bi desagertuko dira, baita beste atezain postu bi ere. Bestalde, erizainen gaueko txanda ere kendu egingo dute eta eguneko ratioa erdira jaitsiko dute. Horrez gainera, erizain laguntzaileei gaueko txanda finkoak inposatuko zaizkie. Hau da, orain arte ez bezala, hemendik aurrera erizain laguntzaile

batzuek gauez baino ez dute lan egingo. Hau onartezina da. Ez da ona langilearen osasunerako. Munduko Osasun Erakundeak ere ez du gomendatzen bakarrik gauez lan egitea.

Horrez gainera, lan baldintzak izugarri kaskartuko dira eta erizain laguntzaileak izango dira kaltetuenak. Erizain laguntzaileen lanpostuak ukituko ez diren arren, erizainak eta zerbitzari-garbitzaileak kentzeak izugarrizko aldaketa ekarriko du euren egunerokoan. Lana gehituko zaie eta ezinezkoa izango da denera heltzea. Euren lanak egoitza pribatuetako geroago eta tankera handiagoa hartuko du. Soldatan ez, baina gainerakoan bai.

Beraz, murrizketekin lau lanpostu desagertuko dira. Orduan, nork beteko ditu postu horiek? Pribatizatzea da bidea?

Egoitzan dauden egoiliarrengan ere izango du eragina?

Jakina. Orain arte, egoiliarrekin egoteko eta zaintza bermatzeko aukera geneukan. Baina, hemendik aurrera, lanpostu batzuk desagertu eta beste batzuk esku pribatuetan geratzen badira, zer gertatuko da? Zainketa sistema aldatuta, posible izango da egoitzako egoiliarren zaintza bermatzea? Azken batean, denbora berean askoz ere egiteko gehiago izango dugu eta denak egitea ezinezkoa izango da. Hau gelditzea lortzen ez badugu, egoera penagarri batera helduko gara.

'Emakumeak oholtzan' ekimena, eguaztenean, Arriolan, musika eskolako eskutik

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Musika Eskolak eta Elorrioko Udalak hainbat alorretan erreferente diren emakumeekin topaketak antolatu dituzte maiatzarako. Musika Eskolatik azaldu dutenez, musika eskoletan ikaslerik gehienak emakumeak dira; hala ere, errealitate hori ez da esparru profesionalean errepikatzen. Hau da, emakumeek musikaren alorrean duten presentzia, ikusgarritasuna eta lan egiten duten arloetako baldintzak gizonenak baino txikiagoak edo okerragoak dira.

Horren zergatiaren berri izateko, topaketak antolatu dituzte. Lehenengoa maiatzaren 3an izango da, 18:30ean, Elorrioko Arriola Antzokian. Bertan, Nerea Alberdi konpositore, orkestradore eta moldatzaileak, Irati Bilbao abeslariak eta Ane Legarreta orkestra zuzendariak parte hartuko dute. Aurkezlea Leire Vargas izango da.

Ekitaldira bertaratzeko, gonbidapenak beharko dira. Gonbidapenak elorrioko.musikaeskola@gmail.com helbidera idatzita eskatu daitezke.

Atxondoko EAJk "esperientziadun taldea" aurkeztu du



Atxondoko EAJko kideak.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko EAJk udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du. Pedro Leon izango da jeltzaleen alkategaia, eta Sabino Gamboa eta María Aranguéz izango dira bigarrena eta hirugarrena, hurrenez hurren. "EAJk talde anitza du, esperientzia, ilusioa eta konpromisoa batzen dituen aurrera egiten jarraitzeko", adierazi dute jeltzaleek.

Atxondoko EH Bilduk "udal herritarra" osatu gura du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EH Bilduk Eneritz Agirre buru izango duen zerrenda aurkeztu du. "Udal herritarra osatu gura dugu, herritarrez osatuta egoteaz gainera herritarrentzat zabalik egongo dena, eta denon beharri-zanak aintzat hartuko dituen",



Atxondoko EH Bilduko kideak.

Abadiñoko sozialistek "talde konprometitua eta hurbila" aurkeztu dute

Javi Crespo da Abadiñoko PSE-EEko alkategaia



Abadiñoko PSE-EEko kideak.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko PSE-EEK bere hautagaiak auzetatu ditu. Javier Crespo alkategai duen alderdiak "talde konprometitua eta hurbila" duela azaldu dute PSE-EEko kideek. "Abadiñorentzat lanean jarrai-

tuko dugu, orain arteko ilusio, apaltasun eta konpromiso berdinagaz", gehitu du Javi Crespo alkategaia.

Zerrendako bigarrena Francisco Antonio 'Patxo' Campo da, eta hirugarrena Iraide Martín.

www.gualbiasesores.com

2022ko

ERRENTA AITORPENAREN kanpaina martxan!

*Egiguzu kontsulta
konpromezurik gabe*



- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.: 946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

DURANGO • JONE GUENETXEA

José Luis García psikologo eta sexologoak pornografiari buruzko berbaldia eman zuen astelehenean, San Agustín kultur gunean. Eduki sexual porno-biolentoek ume eta gazteengan duten eraginaz ohartarazi zuen.

Zeintzuk dira pornoa kontsumitzearen ondorioak?

Ezelango hezkuntza sexualik ez badago eta Internetarako sarrerak kontrolik ez badago, arriskuak oso handiak dira. Nik ume pornografiakoan belaunaldi bati buruz berba egiten dut.

Zer esan gura duzu horregaz?

Soziologoek belaunaldiei buruz berba egiterakoan, milenial, zeta edo X terminoak erabiltzen dituzte. Nik, oster, belaunaldi pornografiako bati buruz berba egiten dut. Ume hauek, batez ere porno biolentoa izan dute hezkuntza erreferente legez.

Pornografiari buruz berba egiten duzunean, zehazki zein eduki motari egiten diozu erreferentzia?

Pornografia berbak nahasmena sortu dezake. Eduki guztiak ez dira berdinak. Nik pelikula sexual erotikoa eta pelikula sexual porno-biolentoak bereizten ditut. Interneten dauden pelikularik gehienak film sexual porno-biolentoak dira, eta eduki horiek kontsumitzeak bere arriskuak ditu.

Zein da eduki biolento horiek kontsumitzen dituzten ume edo gazteen profila?

Ume hauek sexualki oso aktiboak izango dira, orientazio sexuala inporta barik eta sexualki oso goiztiarrak izango dira. Ikusi dutena inposatzen ahaleginduko dira,

“Biolentzia erotizatzea oso arriskutsua da. Ezin dugu onartu gure gazteak sexuaren ideia biolento horregaz heztea”

García aditua da gazteen eta umeen artean pornografiaren kontsumoak duen eragina aztertzen. Gaiaren inguruan hainbat liburu kaleratu du. Durangoko Udalak eta Kurutziaga ikastolak gonbidatuta berbaldia eman du asteon San Agustín kultur gunean

horixe delako eszitatzen dutena. Horregaitik kontsumitzen da pornografia, eszitu egiten duelako eta plazera ematen duelako. Kontuan izan ume hauek garuna erakitze prozesuan dutela oraindino; ezagutzen ari diren eduki horrek, kableatu neuronala moldatzeaz gainera, portaera determinatzen du. Beraz, irudi horiek plazera ematen badiote, normalizat hartzen ditu, ez duelako alderatzeko beste erreferenterik. Porno oso produktu adiktiboa da. Kokainaren gainetik dagoela esaten dut, doan delako, zure etxean kontsumitu dezakezulako. Adikzio botere handia du. Desio sexualak botere handia du. Giza jokaeraren motibaziorik handienetarikoa bat da. Pertsona asko egoera sexualetan inplikatzeko dira, bikotea edo hipoteka ere arriskuan ipinita. Desio sexuala oso boteretsua da, espezieak bizirik iraun dezan. Giza naturan horrela aurreikusita dago eta plazeragaz saritzen du. Presio biologikoa hortxe dago eta nerabeengan ere hortxe dago. Ume adiktoak izango dira, alterazio zerebralekin. Adikzio hau dutenek geroago eta pelikula biolentoagoak bilatzen dituzte. Sentsibilitatea eta enpatia aldatuta izaten dituzte. Bartzelonan labana bategaz mehatxatuta taldean bortxatu duten neskatoaren kasua, esate baterako. Bideoa Interneten ipini zuten eta

neskaren nebak salatu egin zuen. Bideo hori ikusi dutenek ere enpatia eta konpasio arazo bat daukate.

Eduki sexual biolentoak kontsumitzen dituzten gazteek zelan bizi dituzte bikote hartu-emanak?

Ume hauek bikotekideekin ere arazoak izan ditzakete. Izan daiteke bikotekideak praktika sexual batzuk gura ez izatea. Kasu askotan, prostituziora jotzen dute. Porno kontsumitzea eta prostituzioa kontsumitzea lotuta daude. Gazte askok porno biolentoagaz loturiko 1.000-5.000 ordu ikusten dituzte urtean. Aktore bat emakume bati tratatu txarrak ematen ikusten dute hainbeste orduan. Praktikan, jokatzen horiek inposatzen dituzte, eta ez bakarrik gazteek. Emakume asko arduratuta dago jarrera hauekin. Ez bakarrik gazteak, helduak ere bai. Aplikazioak erabiltzen dituzten emakume askok biolentzia sexuala salatzen dute. Kondukta horiek pornotik ateratu dituzte eta erotizatu egin dira. Biolentzia erotizatzea oso arriskutsua da. Ezin dugu onartu gure gazteak sexuaren ideia biolento horregaz heztea.

Zein balio bultzatzen ditu hezkuntza sexual egoki batek?

Sexualitatea bizitzaren dimentsio positiboa da. Samurtasuna, maitasuna, plazera, pasioa ditu oinarri, beti ere adostasun bategaz egiten badira. Askatasuna errespetatu behar da. Baina, biolentzia badago, beste gauza batez berba egiten gabilta. Hori ez da sexualitatea. Oinarritzkoa da gazteei ideia hau transmititzea. Sexualitateaz gozatu dezakete biolentziarik barik.

Zein adinetan hasten dira eduki hauek kontsumitzen?

Ume batzuk, sei urteagaz. Gurasoek pornoa ikusten dute mugikorrean, eta umeek gailu horren bitartez sarbidea dute eduki hauetara. Kasu batzuetan, 8 urteagaz jada smartphone bat oparitzen diete, lehenengo jauntartzean, esaterako. Eta 12 urteagaz %40 baino gehiago kontaktuan egon da pornoagaz. 16 gaz ia denak. Suedian, esate baterako, 16 urteagaz mutilen %96k ikusi dute eduki hauetakoren bat, eta nesken %55ek. Hemen laster egongo gara zifra horietan.

Hain erraza da umeentzat eduki hauetara sarbidea izatea?

Internetara sarbidea duen edozein gailu izanda, ume batek aurrez aurre topatuko ditu eduki hauek. Pornoaren industria gazteen bila joaten da, bideo-jokoetara, sare sozialetan... Twitter pornografiaren bidez dago. Instagram ere loturaz



beterik dago. Alde guztietatik daude. Lehenago edo geroago, topatuko ditu.

Porno oso produktu adiktiboa da. Kokainaren gainetik dagoela esaten dut, doan delako, zure etxean kontsumitu dezakezulako

Zelan kudeatu beharko litzateke gazteek mugikorrak eta gailuekin duten erabilera?

Hasteko, mugikorra ahalik eta gehien atzeratu. Nahiz eta gelako azkena izan. Eta, erosiz gero, topatu ditzakeen arriskuei buruz berba egin behar da umeagaz. Ume bati ezin zaio 1 formulako kotxe bat eman. Gainera, prozesu horretan lagundu behar zaio eta berba egin, lehenago edo geroago eduki hauek agertuko zaizkiola azaltzeko. Ahalik eta lasterren. Edukiak ikusi aurretik izan behar da, gertatzen denean ulertu dezaten eta erabaki dezaten ikusi ala ez. Pelikula porno-biolentoak ez ikustea da proposatzen diedana. Ondorio larriak dituzte. Eta estimulu sexualak gura

badituzte, pelikula erotikoak erabili ditzatela. Gehiago egon beharko lirateke. Estatuak pelikula erotikoa diruz laguntzea proposatzen dut, osasun arrazoiengaitik. Hau osasun arazo bat da.

Guraso askori kostatu egiten zaio gai hauetaz seme-alabekin berba egitea.

Internetek hankaz gora ipini du dena. Nire sasoian, aldizkarietan eta horrelakoetan ahal genuen moduan topatzen genituen eduki batzuk. Gaur egun, ume batek bilatzaile batean 'titia' berba ipintzen du eta milioika pelikula agertzen zaizkio, pornoaren industriak sexuagaz loturiko domeinu guztiak erosi dituelako. Beraz, ahalik eta lasterren berba egin dezatela hartu-eman sexualei buruz, lasaitasunez, kulpabilitaterik barik, eta bisio positibo bat eman dezatela. Gurasoek euren jarreraren ere eredu bat dute umeekiko. Besarkatzea, musu ematea... Egunerokotasuneko jokaera afektiboak ere aurre egin diezaioke pornografiari. Zeren, pornografia gizarte neoliberal batean ez da desagertuko. Gazteen artean jarrera biolentoak hazten ari dira, eta denak gehitzen du. Porno nahasmendu sexual guztiak batzen dituen katalogo bat dela ematen du, eta normalizat saltzen dute.

Udabarria
bertsotan 2023

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea
B multzoa

DURANGO

Maiatzak 4

Plateruena Kultur Aterpean, 18:30ean

- Aritz Katarain Mugarza
- Arkaitz Zipitria Mendizabal
- Bikain Urkiri Etxebarria
- Imanol Arrutia Azkueta
- Peru Irastortza Santxo
- Unai Mendiburu Valor

Gai-emailea: Itxaro Juaristi Olaetxea

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:

Babesleak:

Laguntzailea:

www.bertsozale.eus

Athletic Club




Vs



RC Celta

Athleticen eta RC Celtaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: Maiatzak 10, goizeko 10:00ak arte.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan! >



**anboto
kide**

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

MAIATZEKO ZOZKETAK



Herri Urratseko bi lote.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Gauargi tabernan: Uxue Altube Eguren
Bizkaiko Bertozale Elkartek antolatutako Durangoko
saiorako sarrera bikoitza: Endika Blanco Bravo
eta Unai Sanchez Bravo

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Bizi Berriz kanpaina berri bati ekin diote, tokiko merkataritza sustatzeko

Apirilaren 26an hasi zuten kanpaina berria



Berriz.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Merkatarien Elkartek (BME) eta Berrizko Udalak merkataritza bonuen kanpaina berri bat ipini dute martxan oraintsu, apirilaren 26an hain zuzen ere. Bosgarren edizioa du ekimen honek. Kanpainak ekainaren 6ra arte iraungo du.

Bizi Berriz Bonu Kanpaina leloa errepikatzea erabaki dute, eta, guztira, 530 bonu ipiniko dituzte salgai Berrizko merkataritza sustatzeko; hamabost saltokik bat egin dute kanpainagaz (saltokien zerrenda Berrizko Udalaren webgunean dago). Bonu bakoitza 30 euroan erosi ahalko da, eta, trukean, 45 euroko balioa edukiko du bakoitzak; berriztar bakoitzak bonu bi erosi ahalko ditu gehienez. Aurreko urteetan lez, estetika, osasun, osagarri eta zerbitzuetako komertzioek parte hartu dute kanpainan.

Berrizko Udalak 8.000 euroko partida ipiniko du kanpaina honetarako.

Gaztetxeko bertsio gauean izena emateko epea, ixtear



Berrizko Hiltegixe gaztetxea.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Hiltegixe gaztetxeak bertsio gaua antolatu du maiatzaren 12rako. Parte hartzaileek apirilaren 30era arteko epea izango dute izena emateko; bg.hiltegixe@gmail.com helbide elektronikora edo sare sozialetara idatzita eman daiteke izena. Antolatzaileek aurreratu dute ez dutela proposamen sexista, homofobo, matxista eta arrazistarik onartuko.

Zaldibarko jaietako kartel lehiaketaren 30. edizioa aurkeztu dute

Proposamenak maiatzaren 21era arte aurkeztu daitezke; irabazleak 250 euro irabaziko ditu eta Zaldibarko jaiak iragarriko ditu; bigarren saria 150 eurokoa izango da

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko jaietako kartel iragarlearen lehiaketak 30. edizioa izango du aurtengoa. Parte hartu gura dutenek maiatzaren 21era arte izango dute aukera euren proposamenak aurkezteko; proposamenak udaletxean bertan edota kultura@zaldibar.eus helbide elektronikoan aurkeztu beharko dituzte. Zaldibarko Udalak maiatzaren 23an iragarriko du zein izango den jaiak iragarriko dituen kartela. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du; bigarren saria 150 eurokoa izango da. Horrez gainera, 14 urtetik beherako parte hartzaileek onenari ehun euroko balioa duen saria emango diote.



Artxiboko irudia.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Dena prest dago Zornotzatik zein inguruko herrietatik Bizkargi mendira igo eta gerra zibilean tropa frankisten kontra borrokatu ziren gudariak omentzeko. Bizkargi Gogoratuz elkarteak antolatuta, maiatzaren 7an egingo dute Bizkargi Eguna. Urtero legez, Santi Kurutz ermitaren inguruak musikaz eta lagunarteko giroaz beteko dira, memoria historikoa aldarrikatzeko. Aurtan, Patxi Jaka Bikandi gudaria omenduko dute, Eusko Gudarosteagaz tropa frankisten kontra borrokatu zen miliziano zornotzarra. 1937an galdu zen bere arrastoa, Fikako familia baten testigantzari eskerrak 2019an haren gorpuzkiak agertu ziren arte. Aranzadi Zientzia Elkarrekin egin zituen identifikazio lanak, Gogoraren bitartekaritza-ri eskerrak. Jaka Zabalbide batailoiko kide izan zen eta borrokan zebilela galdu zuen bizia. Haren familiako kideak Bizkargin egingo den omenaldian egongo dira. Ekitaldia 12:30ean izango da.

Egitarrak hainbat atal izango du. 11:00etan, Soinu Txikie taldekoak giroa animatzen hasiko dira. Etxanoko Nagusiari ongi-etorria egin eta txuzoa sartuko dute gero. Ekitaldiaren ondoren, Etxahun Lekue, Onintza Enbeita eta Xabier Arriaga 'Txiplas' ber-

Patxi Jaka Bikandi gudaria gogoratuko dute aurtengo Bizkargi Egunean

Maiatzaren 7an egingo dute Bizkargi Eguna. Aiko taldearen erromeria, Eneko Larruzearen kantaldia, bertsolariak eta dantzak egongo dira. Ernaik ere egitaraua antolatu du



Jende asko batzen da Bizkargi Egunean, Santi Kurutz ermitaren bueltan.

tsotan arituko dira. 12:50ean, Aiko taldearen erromeria eta Eneko Larruzearen kantaldia izango dituzte. Antolatzaileek txosna bat egongo dela iragarri dute.

Ernaik ere bat egin du Bizkargi Egunagaz. Gazteek 9:45ean hasiko dute Bizkargirako igoera, Pike parke- tik. Ekitaldia, bazkaria, jokoak, bertsolariak eta kontzertuak antolatu dituzte.

'Amatatu pantailak' ikuskizuna eta tortilla txapelketa lurretako Oromiño auzoan

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Lurretako Oromiño auzoan jai giroan egingo dute asteburua. Urteetan sustraitutako ekitaldiek ez dute hutsik egingo, beste behin ere. Hartara, Maiztegi eskolako umeek dantza erakustaldia egingo dute, zapatu arratsaldean, eta auzokoek tortilla txapelketa antolatu dute iluntzerako. Ordurako, jai giroa berotzeko prest egongo da Luhartz plaza taldea. Sukalde lanak amaituta, afaltzeko elkartuko dira auzokoak.

'Amatatu pantailak'
Aurtan, nobedade bat egongo da. Izan ere, domekan, Muxika, Ibarruri eta Gorozikako emakumeek osaturiko Oxygastra Curtisii elkarteak *Amatatu pantailak* ikuskizuna egingo du, 18:00etan. Bestalde, Lurretako Mikel Deuna dantza taldeak saioa egingo du, 12:00etako meza amaitu ondoren. Astelehenean Donien Atxa altxatu zuten, eta herri bazkaria egin zuten San Marko eguna ospatzeko.

Arrozen dastatzea, musika eta dantza antolatu dituzte zapaturako lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Arrozen Eguna ospatuko dute, zapatuan, Lurretan. Herriko hainbat elkarte, udalaren laguntzagaz, hainbat ekintzaz osaturiko egitaraua prestatu dute Kultur Aniztasunaren Astea amaitzeko. Askondoko aterpean batuko dira, 11:00etan.

Te eta pasta dastatzeagaz hasiko dute eguna, 11:30ean. Ondoren, adin guztietako herritarrei zuzenduriko tailerrak egingo dituzte. Hennagaz margotzeko eta trentzak egiteko aukera egongo da, eta arabiar idazketa ikasteko; djembe danborrak probatzeko tarte ere izango dute, 12:00etan hasita. Ordu horretan Ghanako txarangak kalera irtengo du.

Ondoren, 13:00etan arro-zen dastatzea hasiko da, eta 14:30ean elkarregaz bazkalduko dute bertaratzen diren herritarrek. Arrozen lehia- keta 15:30ean hasiko da, eta 16:00ean kafea emango dute. Eguna agurtzeko, musika egongo da, 16:30ean hasita.

Zornotzako EAJk udalerri "berde eta jasangarria" sustatzea proposatu du

Urritxe auzoa osorik birmoldatzea gura dute, oinezkoentzako lehentasuna ezarrita

ZORNOTZA • E.H.
Ainhua Salterain hautagaiak azaldu du zornotzarrek herria oinez zeharkatu ahal izatea izango dela bere "lehentasunetarikoa". Horretarako, Zubizabala, Zubipunte eta Zubikurtze herriguneagaz lotzeko, oinezkoen ibilbidea egitea proposatu du. Bestalde, Urritxe auzoa osorik birmoldatzea proposatu du, inguru horretan "oin- zkoentzako espazio zabalagoak" sortzeko.



Oinezkoentzako bide bat Zornotzan.

AP-8 autobideko beharginek greba eguna dute gaur

Langileak 17 hilabete daramatzate hitzarmena negoziatzen

DURANGALDEA • E.H.
Gesbisako enpresa batzordeak, autobidearen Bizkaiko zatia kudeatzen duen enpresa azpikon- trataturiko batzordeak, lanuzte- ra deitu du. Gaur bertan egingo dute greba, 14:00etatik 22:00eta- ra. Langileek salatu dute 17 hila- bete daramatzatela hitzarmena berritzeko negoziazioetan, akor- diorik lortu barik. Negoziazioa "kontzienteki luzatzeko interesa" izatea egotzi diote enpresari, eta

aldarrikapenak "sistematikoki alde batera" uztea.

Gesbisako enpresa batzor- deak Interbiak enpresa publi- koaren "konplizitatea" kritikatu du, "diru publikoagaz" lan es- kubideak "murriztu" eta autobidearen erabiltzaileei "zerbitzu okerragoa" ematen zaielakoan. Gesbisa 2021etik dabil Ermua eta Galdakao arteko autobide zatia Aldundiarentzat (Interbiak) kudeatzen.

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Elikagaiak elaboratzeko teknikaria
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria

lea artibai
ikastetxea

946 169 002 Markina-Xemein
info@leartik.eus

LANBIDE HEZIKETA

17:00

MAIATZAK 18

Ate irekiak

MAIATZAREN 8tik 26ra

Aurrematrikula

Eman izena!

GOI-MAILA:

- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industrial
- Mekatronika industrial
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA

Zibersegurtasuna
eragiketa-teknologiaren inguruneetan

MAÑARIA • J.D.

Kulturak leku pribilegiatua hartuko du Mañarian maiatzean. Kultur Astearen XIV. edizioa ate joka dator eta udalak ekimenez beteriko egitaraua antolatu du aurtenera. Maiatzaren 12tik 21era bitartean izango da Kultur Astea. "Guztion kultura, anitza eta askotarikoa, Mañarian guztiongana heldzea gura dugu", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

Aurtengo 'Maiatza kulturala 2023' ediziorako, hamar ikuskizun antolatu dituzte; hala nola haur antzerkia, musika, kale antzerkia, berbaldiak eta antzeko diziplinak barne hartzen dituztenak. Gustu eta adin guztietako publikoarengana heldzea izan dute helburu, udal ordezkarien esanetan. Horren adibide da egitarauko lehenengo ekimena: maiatzaren 12ko barikuan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek lehenengoz bisitatuko dute Mañaria, umeen gozamenerako.

ARRI ikuskizuna

Egitarauko bigarren hitzordua, 'ARRI' izeneko ikuskizuna, antzerkia, dantza, zirkua, magia eta halako diziplina eszenikoe-tako artistak bilduko dituen ekitaldia da, eta maiatzaren 13ko zapatuan izango da. Mañariko hainbat txoko eszenatoki ezohiko bihurtuko dute eta artistek iraupen laburreko ikuskizunak egingo dituzte bertaratzen direnen gozamenerako. Mañariko Udalak antolatu eta Ganso & Cía antzerki konpainiak koordinatu-

Mursego, 'Arri' ikuskizuna eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots Mañariko Kultur Astean, besteak beste

Maiatzaren 12tik 22rako kultur egitarau oparoa antolatu dute Mañarian. Plazan ez ezik, herriko beste gune batzuetara ere zabalduta gura dute ekimena. Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia edo Tadori Yamaguchi eskultore japoniarra ere izango dira



Mursego musikari kontzertua emango du, maiatzaren 20an.

riko ekimena izango da. Gainera, ARRI ikuskizunak bizilagunak ekimenean "integratzera" eta sormen unibertso hau beste aldetik ezagutzera gonbidatzen dituela nabarmendu dute udaletik. "Benetako maratoi errepikaezina

izango da, Mañaria sormenez tindatuko duena".

Askotariko ekimenak

Maiatzaren 14ko domekan, 12:00etan, Tapia eta Leturia trikitilariak kontzertua emango dute

plazan. 1984tik dabilta plazarik plaza, eta, beraz, datorren urtean 30 urte beteko dituzte eszenatikietan. Egun berean, 19:00etan, Basarti konpainiaren Kale Gorrian antzezlan ikusteko aukera ere egongo da.

Hurrengo hiru ekimenak Errose Bustintza kultur etxeak hartuko ditu. Maiatzaren 16an, 'Bizkaiko kareharriak' izeneko berbaldia emango dute; maiatzaren 17an, 'Herri ibiltarien ipuinak' kontatuko dituzte; eta, maiatzaren 19an, Ines Osinagak eta Joseba Sarrionandiak musika eta literatura uztartzen dituen *Kantuen kontuak* ikuskizuna egingo dute.

Maiatzaren 20ko eguerdian, Tadanori Yamaguchi eskultoreagaz Angurretako harrobia bisitatzeko aukera egongo da. Yamaguchi japoniarrak 20 urte daramatza Asturiasen bizitzen, eta munduko herrialde askotan erakutsi ditu bere sorkuntzak. Bestalde, egun bereko arratsaldean, Maite Arroita Jauregi musikariak —Mursego lez ezagunagoa da— kontzertua emango du. 2023ko Goya sarietan, abestirik onenaren eta jatorrizko musikarik onenaren sariak jaso ditu *Irati* filmeagaitik.

Azkenik, maiatzaren 21ean, Artisautza, Elikadura eta Landare Azokaren XXVII. edizioa antolatuko dute, baita Euskadiko Azpi-Gorri Azokaren VI. Lehiaketa ere.

Mallabiko EH Bilduk hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du

MALLABIA • J.D.

Mallabiko EH Bildutik Igone Amesti izango da alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan. Mallabitarra lehenengoz aurkeztu da zerrendaburu lez. Bere ostean, Estibaliz Katarainek, Haritz Aranburuk, Esti Arrizabalagak, Aitor

Loiolak, Ibaia Azagirrek, Pako Aranburuk, Harkaitz Urretak, Olaia Martinezek eta Eider Gallastegik osatzen dute lehenengo hamarren zerrenda. EH Bildukoek azaldu dutenez, "lan talde anitza da, arduraz eta konpromisoz beterik dagoena".



Mallabiko EH Bilduko zerrenda osatzen duten lagunak.

Uztabarritzen zirkuituko bertso saioa, zapatuan, Otxandion

OTXANDIO • J.D.

Amaitzear da Durangaldea Uztabarritzen bertso zirkuitua. Azkenengo saioa Otxandiok hartuko du, zapatu honetan. Andikona plazan lau bertsolari arituko dira, 18:00etan: Iruri Altxerrek, Gorka Pagonabarraga, Peru Abarrategi eta Sustrai Colina. Otxandioko bertso eskolako kideak ibiliko dira gai jartzaile lanetan.

Martxotik hona bost bertso saio izan dira zirkuituaren barruan: Berrizen, Zornotzan, Elorrioren, Garain eta Mañarian. Otxandiokoa seigarren saioa izango da. Guztira, Durangaldeko hamazortzi bertsolari eta eskualdetik kanpoko beste hainbat bertsolari parte hartuko dute ekimenean.

Martxan da Izurtzako jaietako kartel lehiaketa

Kartel irabazlearen egileak 350 euroko saria jasoko du; maiatzaren 12ra arte aurkeztu daitezke proposamenak

IZURTZA • J.D.

Irailean ospatuko diren jaietako kartel lehiaketa hasi du Izurtzako Udalak. Proposamenak Izurtzako udaletxean aurkezteko epea maiatzaren 12ra artekoa da eta kartel irabazlearen egileak 350 euro jasoko ditu.

Kartelak hainbat eskakizun bete behar du. Esaterako, testu hau agertu behar da nahitaez: 'Izurtzako jaiak 2023'. Bestalde, irudian jaien ezaugarrien bat jaso edo adierazi behar da. Teknikan ez dago mugarik; bakoitzak gura duen teknika erabili dezake kartela. Formatuak bertikala izan behar du nahitaez, eta 50 X 70 zentimetroko neurrikoa. Kartelak informatika euskarrian

eta DIN A3 tamainako paperean inprimatuta aurkeztu behar dira, udaletxean.

Behin proposamenak jasota, kultur eta jai batzordeko kideek

Aurkeztutako kartelean honako testu honek agertu behar du nahitaez: 'Izurtzako jaiak 2023'

osatuko dute irabazlea zein den aukeratzeko epaimahaia. Baliteke aurkezturiko kartelekin erakusketak bat antolatzea urtean zehar. Oinarriari buruzko informazio osoa udaletxeko webgunean aurkitu daiteke.

Zabalarren abesti berriaren bideoklipa grabatu dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz

Ekainaren 1ean emanaldi bi egingo dituzte Plateruenean, bideoklipa estreinatzeko



Porrotx Zabalarra ume batzuekin. BIDEOGRAFIK

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Zabalarra eskolako gurasoen elkar-
teko euskara batzordeak eta esko-
lako komunitateak ekimen berri
bat hasi zuten iaz: eskolako kideen
arteaz ezaguna den kamiseta ber-
deak barnetatzen dituen eskolako
balioak eta euskara sustatzeko
abesti bat sortzea. Harrezkero,
hainbat ekimen egin dute helburu
horregaz. Martxoan abestia graba-
tu zuten, eta asteon Pirritx, Porrotx
eta Marimotots Zabalarra izan
dira abestiaren inguruko bideokli-
pa grabatzeko. Eskolako ikasleekin
ere egin dituzte grabazioak.

Abestiaren izena 'Zabalarra
zapaburuak' izango da. Ekainaren
1ean emanaldi bi egingo dituzte
Plateruenean, abestia eta bideokli-
pa estreinatzeko. Sarrerak laster
egongo dira eskuragarri.

Politikan

Neskutz Rodriguez
Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Durangotik Durangora

Azken hileetan asko galdetu
digute Podemosekin dugun
harremanaz. Batzuek uste dute
alderdi politiko bera garela.
Pertsona horiei guztiei, ordutik
aldatu ez den egoera bera azal-
du diegu.

Batzartu gara? Bai! Akordio
batera iritsi gara? Ez, eta zer-
gati azalduko dut. Podemos
alderdi bertikal bihurtu da, non
erabakiak bertikalki, inposake-
taz eta eztabaidarik gabe har-
tzen diren. Eskarmentutik hitz
egiten dut, 2014an Podemos
Euskadin bultzatu zuten pertso-
netako bat naizelako.

Herriaren Eskubidea, aldiz,
pertsona askotariko eta desber-
din askoren batura da, 2015ean
jaio ginenetik aldatu ez den
helburu komun batekin: Du-
rango hobetzea, erabakiak Du-
rangotik hartuz, ez Gasteiztik
ezta Madrildik ere.

Podemosekin proiektu eta
ildo komunak baditugu, elka-
rrekin lan egin daiteke? Jakina!
Herriaren Eskubideak beste
alderdi batekin koalizioan go-
bernatu dugu eta Durango ber-
reskuratzeko plan bat adostu
dugu. Udaleko alderdi politiko
guztiek ere akordioak lortu
ditugu, Durango hobetu duten
neurriak martxan jarritz.

Baina Durangok hobetzen
jarraitu behar du. Gimnasia
edo igerilekura joaten gare-
nean, topera dagoela ikusten
dugu. Osasun publikoa kolap-
satuta ikusten dugu. Kaleak
zahartuta edo irisgarritasun-
ik gabe daude. Eraikin asko
dauzkagu berreskuratzeko eta
zerbitzu publikoak hobetzeke.
Horregatik, lanean jarraituko
dugu, Durangotik, hemen bizi
garen pertsona guztien bizitza
hobetzeko. Zuk ere parte izan
nahi baduzu, zatoz Andramari
15eko gure lokalera.

Durungaldea asteon



Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gune berri bat erabilgarri dago Mallabian

MALLABIA | Mallabiak bizi-
kletak konpontzeko bizi-
kleta puntu bat du Arteiz
kaleko 4. zenbakian, uda-
letxearen atzean. Erabilera
libreko eta doako estazioa
da, txirrindulariek bizi-
kletan konponketa txikiak
eta mantentze-lanak egin
ahal izateko beharrezko
tresnekin hornitua.



Apirilaren 29an Basatzan egingo dute, Iurretako V. Mendi Bizikleta Martxa

ABADIÑO | Zapatuan Basatzan 2023 Angelman - Iurretako V. Mendi
Bizikleta Martxa egingo dute. Zaldai Mendi Taldeak Angelman sin-
dromearen elkarreagaz batera antolatu du. Ibilbideak 25 kilometro
ditu, 1.000 metroko desnibel positiboagaz. Irteera 10:00etan izango
da, Aita San Migel plazan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarre edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Diru laguntza Abadiñon, eskualdeko igerilekuetako sarrerak ordaintzeko

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak diru laguntza emango die 2023ko urtarilaren 1etik apirilaren 19ra bitartean Durungaldeko beste udalerri batzuetan udal igerilekuak erabili dituztenei. Datozen as-
teetan emango du diru laguntzak eskatzeko epearen irekieraren berri. Hobariak eguneko sarreraren eta abonuen kostuaren %50era artekoak izango dira.

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



MARRAZTEN IKASI

Hartu margoak eta pausoei jarraituta ikasi krokodilo bat marrazten.

1

2

3

4

5

6





Ostalaritza gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*



Durango



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Iurreta



GAUARGI
Dantzari 4 behea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak. Domeketan
rabak eta askotariko errazioak.



Zornotza



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro
alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.





Sanprudentzioak

JAIK ABADIÑO :: Apirilak 29

Mozorro Eguna ospatuko dute, zapatuan, Traña-Matienan

Atzo txopoa altxatu ondoren, jai giroa da nagusi Abadiñoko Traña-Matiena auzoan. Denboraldiko lehenengo jaiak martxan dira eta Durangaldean nabaritzen da parrandarako gogoia. Zapatuan, gainera, kolore berezia hartuko dute kaleek: Mozorro Eguna ospatuko dute.

Aurten, Jai Batzordeak Marrazki Bizidunak gaia aukeratu du.

Domekan, Gazte Eguna izango dute. Txupinazoa eta herri bazkaria antolatu dituzte eguerdirako, eta gauean Esne Beltza eta Gora Etorri taldeek joko dute. Ondoren, DJ Ku Ku arituko da musika ipintzen.

Apirilaren 28an

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Umeentzako entzierroa,
16:45ean, Traña plazan.
Txupinazoa eta parrillada,
20:00etan, txosnagunean.
DJ Wimis vs DJ Alus,
21:00etan.

DURANGO **musika**
Jamm Session, 21:00etan,
Plateruenean.

IURRETA **ipuinak**
‘A, E, I, O, U, ni eta zu!’, ipuin
kontaketa (Amaia Egidazu),
Herri Bibliotekan: 17:00etan
(3tik 5 urtera) eta 17:45ean (sei
urtetik gorakoak).

IURRETA **ipuinak**
‘El lugar en el que vivo’
(Mon Peraza) 19:00etan, Herri
Bibliotekan.

ZORNOTZA **antzerkia**
**‘Señora de rojo sobre
fondo gris’** (José Sacristán),
20:00etan, Zornotza Aretoa.

Apirilaren 29an

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Kickboxing opena,
10:00etan, kiroldegian.
Herri bazkaria, 14:30ean,
Traña plazan. Ondoren, kuadrillen
arteko jolasak.
Mozorro kalejira, 19:00etan,
Trañabarren kalean.
Ikuskizun piro-musikala,
22:15ean, tren geltokiaren
alboan.
Altxa Porru, 23:00etan, Traña
plazan.

DURANGO **jaiak**
Ibilgailu Klasikoen V.
Kontzentrazioa, 09:30ean.
Herria auzo elkarteak antolatuta.
30 kilometroko ibilbidea,
11:30ean. **Luntxa**, 12:30ean.
Sariak, 13:30ean.
Potx Magoa, 17:00etan.
Dj Ainhoa, 21:00etan.

DURANGO **antzerkia**
**‘Señora de rojo sobre
fondo gris’** (José Sacristán),
19:00etan, San Agustín
kulturgunean.

IURRETA **jaialdia**
Arrozen Eguna, 11:00etan,
Askondoko aterpean.

OTXANDIO **bertsoak**
Durangaldea Uztabarritzen
III. Bertso Zirkuitua:
Iruri Altzerreka, Gorka
Pagonabarraga, Peru
Abarrategi, eta Sustrai
Colina, 18:00etan. Gai
jartzailea: Otxandioko Bertso
Eskola.

Apirilaren 30ean

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Gazte Eguna
Batukandra, 12:30ean
Txupinazoa eta herri
bazkaria, 14:30ean, Traña
plazan. Gero, jolasak.
Kalejira Eskapaie taldeagaz,
18:30ean.
Esne Beltza+Gora Etorri+DJ
Kuku, 23:00etan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

DURANGO **jaiak**
Artisautza azoka, 11:00etan,
Herria elkarteak antolatuta.
Bertso saioa: Ixone Asategi,
Gorka Pagonabarraga eta
Ander Sarriugarte, 12:30ean.
Dj Kaktus, 17:00etan.
Old Berri Band, 21:00etan.

Maiatzaren 1ean

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Txanbolineko Txistularien
kalejira, 10:00etan.
Goizean, **Geu Be-k Eusko**
Labeleko txahala erreko du,
Traña plazan.
Artisautza eta Sortzaile
azoka, 10:00etan, frontoiko
aparkalekuan.
Herri kirolak, 12:00etan, Traña
plazan.
Mus txapelketa, 16:00etan,
Taberna Zarran.
San Prudentzio pilota
txapelketako finalak,
17:00etan.
‘Turistreatzen’ (Trapu
Zaharra), 17:30ean, Traña
plazan.
Showcooking eta Txiki Txef
saioa (Zigor Iturrieta) +
sorospen tailerra (Amaia
Munitxa), 18:30ean. **Janari**
bilketa solidarioa, Atxondo
Harrera Herriarentzat.

DURANGO **jaiak**
Kalejira eta txapligoak,
10:00etan, Herria elkarteak.
2. Eskuko Azoka eta bizikleta
buelta, 11:00etan.
Kriskitin taldea, 12:30ean.
Tute txapelketa, 16:30etan.

Egurrezko jolasak, 17:00etan.
Otamotzenan.
Txokolatada, 18:00etan.
Igel Txapelketa, 19:00etan.

Maiatzaren 3ra bitartean

ATXONDO **izen ematea**
Antzerki tailerrean (8-14
urte) izena emateko azken
eguna maiatzaren 3a. Tailerra
maiatzaren 20-21ean izango da.
Sonia Villamor antzezlearen
eskutik, Alboan Psikogunean.
Informazioa: 688 774 295.

Maiatzaren 4an

ABADIÑO **kontzertua**
Mocker’s, 19:30ean, Amaraun
arte fabrian.

DURANGO **berbaldia**
‘Utopía y fantasía’ (Ander
Lopez), 19:00etan, Arte eta
Historia Museoa.

DURANGO **musika**
EguenEro: Irati Otadui,
20:30ean Intxaurre tabernan.

DURANGO **bertsoak**
Bizkaiko Bertsolari
Txapelketarako sailkapen
fasea. Araitx Katarain,
Imanol Arrutia, Arkaitz
Zipritia, Peru Irastorza,
Bikain Urkiri eta Unai
Mendiburu, 18:30ean,
Plateruenean. Gai-jartzailea:
Itxaro Juaristi.

IURRETA **ekitaldia**
‘Hitz esana’ (Mejillon Tigre),
19:00etan, Gaztetxean.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEAN
• **Violeta, el hada traviesa**
barikua 28: 17:00
domeka 30: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA
• **Fatum**
barikua 28: 18:30 / 21:00
zapatua 29: 17:30/19:30/21:30
domeka 30: 18:00/20:30
astelehena 1: 18:00/20:30
martitzena 2: 18:00 / 20:15
eguztiena 3: 19:00

• **Los buenos modelos**
barikua 28: 18:30 / 21:00
zapatua 29: 17:30 / 19:30 / 21:30
domeka 30: 18:30 / 20:30
astelehena 1: 18:30 / 20:30
martitzena 2: 18:00 / 20:15
eguztiena 3: 19:00

• **Si, quiero... o no**
barikua 28: 21:00
zapatua 29: 21:30
domeka 30: 18:00
astelehena 1: 18:00
martitzena 2: 18:00
eguztiena 3: 19:00

• **20.000 especies de abejas**
zapatua 29: 18:45
domeka 30: 20:30
astelehena 1: 20:30
martitzena 2: 20:15

• **Super Mario Bros**
zapatua 29: 16:30
domeka 30: 16:30
astelehena 1: 16:30

• **Film laburren emanaldi**
berezia
barikua 28: 18:30

::Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Los Fabelman**
zapatua 29: 20:00
domeka 30: 20:00
astelehena 1: 20:00

• **Mavka: basoaren zaindaria**
domeka 30: 17:00

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Un paseo con Madeleine**
zapatua 29: 20:00
domeka 30: 20:00
astelehena 1: 20:15

• **Super Mario Bros**
domeka 29: 17:00
astelehena 30: 17:00

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

próktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06



**Abinara
Urreta
Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaitzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

Hogeita hiru urteren ondoren, Quattro Clavos talde zaldibartarrak azken kontzertua emango du, zauria ixteko asmoagaz

Ondarroako Beikozini aretoan izango da gaurko kontzertua, 22:00etan. 23 urteko etenaldiaren ondoren, zuzenekoa emango dute zikloa ixteko

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Orain 23 urte zabalduko zauri bat osatzeko asmoz eta ziklo bati amaiera emateko gogoz, Quattro Clavos talde zaldibartar mitikoak azken kontzertua emango du. 2000. urtean Joserra Garitaonandia taldeko bateria-jotzailearen moto istripuak (eta honen heriotzak) bapatean eten zuen sasoi betean zegoen taldearen jardura. "Europan hilabeteko bira egitetik gentozen, eta Zaldibarren bertan oso kontzertu potentea prestatzen genbiltzan. Hertzainakeko 'Gari'-k (Iñaki Igon Garitaonandia), Reincidenteseko Jose Luis Nieto 'Selu'-k, Iñaki Anton 'Uoho'-k, 'Fitto' Cabralesek eta Extremoduroko 'Robe'-k parte hartu behar zuten", azaldu du Javi Garitaonandia taldearen sortzaile, baxu-jotzaile, abeslari eta Joserra zenaren anaiak. Ordutik, zorroan gordeta

Zaldibartik autobusa antolatu dute Ondarroako kontzerturako; momentuan eman daiteke izena



Zutunik, Erlantz Zimendi, Itsaso Leaniz, eta Mikel Arrieta; makurtuta, Javi Garitaonandia eta Aintzira Gorosabel.

EP bi kaleratu zituen, eta dozenaka kontzertu eman. "Asteburuetarako, buruan ez genuen zuzenean jotzea besterik. Horrela ordaindu genituen ekipoa eta furgoneta. Pentsa, Europako biran, 23 egunean, 17 kontzertu jo genituen", azaldu dute. Reincidentes eta Extremoduro taldeekin hamaika kontzertu eman zituzten. Horietatik, Celeste aretoan (Bartzelona) eta Argentina aretoan (Madril) emandakoak gogoan ditu, batu zuten jende kopurua gaitik, "2.500 eta 5.000 laguneko kontzertuak jo genituen eurekin", gaineratu du.

Europatik egindako biran, 23 egunean 17 kontzertu eman zituen Quattro Clavos taldeak

Zuzeneko grabazioa

Azken asteetan, taldea buru-belarri dabil entsegu lokalean. Kontzertua eman ez ezik, grabatu ere egingo dute, Mikel Santos teknikariagaz. Etorkizunean ez dute baztertzeko beste kontzerturen bat jotzea. Hala ere, gaxa izango dela azpimarratu dute: "Gustatuko litzaiguke, baina ez dakigu posible izango den; daramagun bizimoduagaz oso konplikatu da". Baina taldekideek ondo gogoratuko dute azken urtean bizitakoa: "Oso intentsoa izaten ari da dena; gogorra, baina entseguak amaituta pozik goaz etxera". Gau batez, 90eko hamarkadara bueltatuko da Beikozini, eta momentu hunkigarria biziko du, orain 23 urte zabalduko zauria ixteko.

eduki du baxua zaldibartarrak. "Niretzat dena amaitu zen, maila pertsonalean, talde lez... Egune-ro geratzen ginen entseatzeko, berbetako, zerbait hartzeko... kolpe handia izan zen", adierazi du. Oraintsu arte. Izan ere, hamabi urteko ibilbideari merezitako agurra emango diote, gaur gauean, Ondarroako (Bizkaia)

Beikozini aretoan. "Neure buruari eta jarraitzen gintuen jende guztiari zor diot", borobildu du Garitaonandia.

"Pandemia aurretik, Iratxe Mendiagarayri deitu nion; zikloa ixteaz berba egin genuen eta aurrera egitea erabaki genuen. Iratxe, baina, gaixotu eta hil egin zen", dio penatuta Garitaonandia. "Orduan, orain urtebete inguru, ostera ere

baxua hartu eta abestiak berreskuratzeari ekin nion". Gero, Erlantz Eizmendi zaldibartarragaz (bateria) berba egin zuen. "Proposamena guztiz bota aurretik jada baiezkota eman zidan", dio barreka. Itsaso Leanizek bistaz ezagutzen zituen Garitaonandiatarrak eta Quattro Clavos, eta gogotsu hartu dio erronkari ere. "Emozioaren faktorea hor dago, jakina. Proposamena

barrenetik egin zigun Javik, eta horrelakoak barruraino heltzen dira. Zaldibarko herria ere gogotsu dago, Joserra eta Iratxe zaldibartarrak zirelako, eta Quattro Clavos ere bertako talde kutuna zen", esan du Leanizek. Mikel Arrieta eta Aintzira Gorosabel gitarristek osatzen dute kontzertua emango duen boskotea.

Hamabi urteko ibilbidean, Quattro Clavos taldeak hiru lan luze eta



Udal ordezkariak Oiane Azkonizaga L'Atelierreko arduradunagaz, egitarauaren aurkezpenean.

L'Atelierreko 500 dantzarik parte hartuko dute Dantzaren Nazioarteko Egunean Durangon

Egun osoko egitaraua prestatu dute Landako Gunean biharko. Balleteko ikasleekin ekingo diote goizari

DANTZA • JONE GUENETXEA

Bihar, Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, L'Atelier dantza eskolako ikasleek erakustaldia egingo dute Landako Gunean. Guztira, 500 bat dantzari batuko dira, diziplina anitzekoak. 10:00etarako umeentzako tailerrak antolatu dituzte. Dantza erakustaldiak 11:00etan hasiko dira, ballet klasikoa ikasten dabiltzan dantzariekin. 12:30ean Sanagustinaldeko barandan arituko dira, eguraldi ona egingen badu.

Osterantzean, Landako Gunean egingo dituzte ariketa horiek.

Arratsaldean, dantza moderno, garaikide eta urbanoen txanda izango da, 16:00etatik 19:00etara bitartean.

Oiane Azkonizaga dantza akademiako arduradunak nabarmendu duenez, "mota honetako ekitaldiak garrantzitsuak dira dantzari gazteek nagusiagoak ikusita dantza arloan egin daitekeen garapena ikusteko".

Txapelketak helburu

L'Atelierreko dantzariak nazioarteko txapelketetan parte hartzen dute, eta oso emaitza onak lortzen dituzte. Aste Santuan, balletekoak nazioarteko txapelketa bateko finalera sailkatu dira, besteak beste. "Txapelketek helburuak finkatzen dituzte eta ilusioz dabil-tza parte hartzen", gaineratu du Azkonizagak. Txapelketa hauetan parte hartzen duten ikasleen bidaiak eta gastuak finantzatu ahal izateko, bihar taberna ipiniko dute Landako Gunean. Errifak ere salduko dituzte.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Ideia aspalditik buruan bueltaka izan arren, Hitzez eta Ahotsez ekimeneko taldekideek bederatzigarren ediziora arte itxaron dute umorea gai lez aukeratzeko. “Erronka bat izan da euskarazko literaturan umorea bilatzea eta hori azaleratzea”, azaldu dute elkarriketan. Endika Blanco Bravo, Marisa Barrena Larruzea, Miren Bihotza Erzilla Aroma eta Maripa Garaizabal Aizpurua Hitzez eta Ahotsezeko ki-deekin batu da ANBOTO. Solasaldian, Hitzez eta Ahotsez sortu zenetik hil diren zortzi irakurle eta argazkilariak ere gogoan izan dituzte; azkena Jose Mari Bilbao ‘Mañari’.

Existitzen da umorea euskal literaturan?

Marisa Barrena Larruzea: Kontua da zer den umorea. Egon badago, baina Ane Labakak *Algara mutilatuak* liburuan dioen moduan, emakumeak baztertuta egon gara. Eta hori plazaratzea garrantzitsua da. **Miren Bihotza Erzilla Aroma:** Ironia oso euskalduna den zerbait dela esango nuke; baina hankamotz dago. Eta desberdina da ahozkoa izan edo idatzitakoa.

Kostatu zaizue irakurketarako testuak aukeratzeko?

Maripa Garaizabal Aizpurua: Ni hikarako ibili naiz begiratzen, eta egia da kostatzen ari zaidala, eta emakumeenak, are gehiago. **Endika Blanco Bravo:** Topatu dugun gehiena gizotasunetik idatzia izan dela ikusi dugu. Beraz, erronka bat da hor arakatu eta zeharka edo ezkutuan emakumeek zer sortu duten ikustea, eta hori plazaratzen ahalegintzea.

“Klasikoetan gizonezkoak dira protagonista; horrek ere adierazten du zelako literatura dugun”

Hitzez eta Ahotsezen bederatzigarren irakurraldi girotua maiatzaren 5ean izango da, Durangoko Benita Uribarrena parkean; 17:00etan hasita, bertaratzen diren lagunak 22:00ak arte egongo dira umorezko euskal literaturako testuak irakurtzen



M. B. L.: Badago gizonezkoen umorea; adibidez, Fernando Amezketa, edo Kirikiño... Klasikoetan gizonezkoa da protagonista, eta andrak bigarren mailakoak; askotan estereotipotik, gainera. Hori ere adierazgarria da, jabetzeko zelako literatura daukagun. **M. B. E. A.:** Norbere sorkuntzak ere egoten dira irakurtaldi girotuan,

eta hor ere espero dugu egotea umore freskoago bat. **Zelan joan dira aurtengo beste ekitaldi biak?** **M. G. A.:** Oso ondo. Jendetsuak izan dira. Beatriz Egizabalek *Baobo* saioa egin zuen. 60 lagun batu ginen liburutegian literaturaz berbetako. **E. B. B:** Beatrizek ere onartu zigun

oso pozik zegoela. Esan zigun ez duela hainbeste aukerarik horrelako saioak egiteko. **M. B. L.:** Ane Labakaren berbaldia ere oso ondo egon zen. Aurpegi berriak ikusi ditugu ekitaldi bietan, eta hori ere oso pozgarria da. Irakurtaldi girotuan, 180 bat lagun egongo gara. **Tokiz aldatu duzue ekitaldia.**

E. B. B: Horixe da aurtengo berrikuntzarik handiena. Lehenengotan, Plateruenean egiten hasi ginen; hau interakoan, San Agustiner mugitu ginen; hor ere oso ondo konpondu ginen arren, ekitaldia gehiago zabaldu guran kalera, Benita Uribarrena parkera, ateratzea erabaki dugu, ea horrela jende gehiago datorren.

Gai librean

Godardi buruzko film baterako apunteak

Aspaldi da zine aretoetan tabakoaren kea debekatu zela. Eskandalua ez da existitzen bizi ditugun garaiotan, baina zine zikloak bai. Durangoko taberna kanpoaldeetan arteaz mintzo da jendea. Kontenplaziotik urrun, artista eta proletarioaren arteko distantzia apurtzeaz eztabaidan ibili ohi dira. Errealitatea deskribatu beharrean, errealitatea eraikitzen duten esapideekin. Teknika fantasmagorikoak darabiltzate desira fluxu berriak sortuz, berborrea eta keinu lizunekin, bizitza komun aldeko saiakera etengabea. Norbait begira egongo balitz bezala erretzen dute gainera. Zigarroak eta kolore gorriko estimuluak non-nahi. Garagardo botila



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

Eskandalua ez da existitzen bizi ditugun garaiotan, baina zine zikloak bai

Deanbulazioaren erakusketa goren horretan, pelikula nola amaituko den ezin asmatu dabil ikuslea

eskuetan, egia absolutuak kabitzen diren esaldiak osatzen dituzte noizean behin: 'zinema errealitatea transformatzeko modua da'.

'Eta bizitza zinemaren imitazio pattala' litzateke betazal urdindunaren erantzuna zuzenean kamerari begira (maitasunean legez, bigarren hitz egiten duenak abantaila dauka beti). Orduan, musika klasikoa tartekatuz, plano azkarren sekuentzia luzeak ematen dira: kanean gora pertsekuzio bat, tiroak, bortxaketak, ikasle asanblada bat, letra urdinak fondo beltzaren gainean; propaganda, mo-zorroak, tiro gehiago, letra gorriak fondo beltzaren gainean; liburuak, auto pertsekuzio bat, borroka koreografiatuak eta letra zuriak fondo beltzaren gainean. Zinema pazientziaren termometroa ere bada. Deanbulazioaren erakusketa goren horretan, pelikula nola amaituko den ezin asmatu dabil ikuslea. Letra gorriak fondo beltzaren gainean.



Yaiza Romero García
Apnea egiten du
ZORNOTZA | 1997

“Niretzat apnea egitea urpean yoga egitearen modukoa da”

Apneako Espainiako txapelketan aritu berri da; irailean, urpeko arrantzako munduko

APNEA • JOSEBA DERTEANO

Yaiza Romerok itsasoa du bere inguru naturala. Urpeko arrantzan espezialista da eta gaur egun Espainiako azpitxapelduna da modalitate horretan. Hori gutxi balitz, irailean Laredon izango den munduko txapelketan parte hartuko du. Neguan, itsaso zakarra egoten den urtaroran, itsasoa igerilekuagaitik ordezkatu eta apnea kirola praktikatzen du. Apnean hainbat modalitate dago, baina denak bat datoz ezaugarri batean: ur azpian arnasarik hartu barik ahalik eta denborarik luzeena igaro behar da. Joan zen asteburuan, Oviedoko Espainiako txapelketan parte hartu zuen Euskadiko selekzioagaz.

Zelan joan zen Espainiako txapelketa?

Pozarren nago egindako lanagaz. Espainian maila ikaragarria dago apnean, eta banekien dominak irabaztea oso gaxa izango zena. Modalitate batzuetan nire marka pertsonalak hobetzea nuen helburu, eta lortu nuen. Apnea estatikoan 4 minutu eta 37 segundo eman nituen uretan arnasarik hartu barik. Nire aurreko marka 4:01ean zegoen. Apur bat gehiago eutsi nezakeen, baina hortik aurrerakoa eremu ezezaguna zen eta gurago izan nuen seguru jokatu. Hegats biko dinamika proban, 84 metroan zegoen nire marka; 100era heldu gura nuen eta 111,1

metro egin nituen. Beraz, oso pozik nago. Pena bakarria hegatsik bako dinamika proban geratu zait, ezin izan nuelako nire marka hobetu. Taldeka hirugarren geratu ginen eta benetan lorpen handia da gaur egun zelako maila dagoen ikusita. **Urpeko arrantza da zure beste pasioa. Hau ere apnean egiten den kirola. Gaur egun, Espainiako azpitxapelduna zara eta irailean Laredon (Kantabria) lehiatuko den munduko txapelketan parte hartzeko hautatu zaituzte.**

Lehenengoz ibiliko naiz munduko txapelketan. Urte birik behin egiten da eta aurtengoa etxetik hain gertu izanda, benetan aprobetxatu gura dudana aukera da. Laredon bertan entrenamenduak egingo ditugu, inguruak aztertzeko eta prestatuta lanak egiteko. Podiumean egotea dut helburu. Dena ematera noa eta ahaleginduko naiz.

Munduko txapelketan lehenengoz arituko zara, baina nazioartean gehiagotan ere aritu zara.

Bai. Iaz hasi nintzen nazioarteko txapelketetan. Lehenengo, ur gezako Europako txapelketan parte hartu nuen, Finlandiako Puruvesi lakuan. Ur gezako urpeko arrantza indarra hartzen dabil aspaldian, eta Finlandiakoa Europako estreinako txapelketa izan zen. Laugarren geratu nintzen. Pena hartu nuen, hirugarren postuak 30 gramogaitik bakarrik ihes egin zidan eta. Horren ondoren, Euroafrikako

txapelketan izan nintzen, Tunisian. Taldeka azpitxapeldun geratu ginen.

Alde handia dago ur gezan aritzetik ur gazian aritzera?

Flotagarritasunean alde dago. Horrez gainera, Puruvesi lakuan oso gutxi ikusten zen urpean. Ez nintzen sakonera handian ibili, gehienez 15 metroan, baina zazpi metrotik aurrera ez zen ezer ere ikusten. Azpimundu batean sartzen zinela zirudien. Linternagaz bakarrik, beldur apur bat ematen zuen. Itsasoan desberdina da, ilun egonda ere ikusten da eta. Horrez gainera, ur sakonean lokatza zegoen eta ha zapalduz gero irentsi egiten zintuen. Kontuz ibili beharra zegoen.

Urpeko arrantza ez da ohiko kirola. Zelan zaletu zinen?

Ez da baloiari ostikadak ematea edo zapatilak jantzi eta korrika hastea bezain ohikoa, ezta? Nire zaletasuna aitari zor diot, Rafa Romerori. Gaztetatik egiten du eta oso zalea da. Beragaz hasi nintzen. Etxean zodiak bat ere badaukagu. Beraz, etxean betidanik izan dut itsasogazko lotura hori.

Zein da inoiz arrantzatu duzun piezarik handiena edo bereziena?

Handiena 18 kiloko itsas aingira bat da. Iazko maiatzetan izan zen, Euskadiko txapelketan, Getaria inguruan. Berezien artean, hainbat ditut: meroa, txelba hortzandia... Txapelketetan arrantzaturiko dena



Yaiza Romero hegatsik bako urpeko saio batean.

aprobetxatzen da: ongitzazko elkarreetara edo elikagai bankuetara eramaten da.

Apnea egitea zenbateraino da berezkoa, birikek berez duten ahalmenagaitik, eta zenbateraino entrenatu daiteke?

Jendeak uste duen baino ahalmen handiagoa du urpean arnasarik hartu barik egoteko. Gertatzen dena da egoeragaitik estutasuna sartzen dela. Psikologikoa da eta hori landu egiten da. Egia esan, batzuek, genetikoki, biriketan ahalmen handiagoa dute, baina asko lana da, entrenamenduagaz lortzen da.

Eta zelan entrenatzen da?

Erlaxamendua lantzea funtsezkoa da. Luzaketa ariketak ere garrantzitsuak dira. Hortik aurrera, norbere burua apur bat gehiagora derrigortzean dago gakoa. Korrika egiterakoan gertatzen den moduan: orain bost kilometro, gero sei...

Lanketa horrek ekarri dizu onurarik bizitza pertsonalean?

Bai, niretzat apnea egitea urpean yoga egitearen modukoa da. Apnearen onurak ohiko bizimodura estrapolatu daitezke. Badakit geroago eta jende gehiagorengana zabaltzen dabilena. Ikastaroak ematen dituztenek esan didate geroago eta abokatu, suhiltzaile eta surflari gehiago dituztela. Estresa hobeto kudeatzeko baliatzen dute.

Zure markarik onena lortu berria duzu (4:37 minutu) eta oraindino 26 urte baino ez dituzu. Noraino heldu gura zenuke?

Ni apurka-apurka noa. Orain bost minutura heltzea gustatuko litzaidake. Marka horretan dut burua.

Emakumeetan, Isabel Sánchez Aranek dauka Espainiako errekorra, zazpi minutu eta segundo batean.

Apnea egitea zein punturaino da kirol arriskutsua?

Bakarrik egiten baduzu da arriskutsua. Muturrera heltzean, konortea galdu daiteke. Gorputzak hartzen duen segurtasun neurri bat da, gertatzen den oxigeno urria biziraupe-nera bideratzeko. Egoera horretan uretatik aterako zaituen inor ez badago ito egin zaitezke. Baina aditua den norbaitegaz bazaude eta arnasari ahalik eta gehien eustera zoazela abisatzen badiozu, adi egongo da eta aterako zaitu. Txapelketetan jende asko dago gu zaintzen, eta ez dago arriskurik.

Apnea egiterakoan, pentsatzen da ala kontzentrazioa da dena?

Askok kontzentrazioa da. Pentsatzerakoan, pentsamendu alaietan zentratu behar zara, apnea atseginago egingo dizuten horietan. Niri apneak desinhibitzeko balio dit. Arazo guztiak ahazten ditut.

Apirilean zazpi urte bete dira Joseba Kerejeta hil zela, urpeko arrantzan mundu mailako erreferentea izan zen abadiñarra. Ezagutu zenuen?

Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan ikustearen oroitzapena dut. Oso figura inportantea zen urpeko arrantzan, eta mundu guztiak maite zuen. Munduko txapelketa irabazi izanak garbi adierazten du zer maila zuen.

Beste ezer gehitu gura duzu?

Zornotzako Udalari, federazioei, Glaukos taldeari, Cressi nire babesleari eta aitari eskerrak eman gura dizkiet euren laguntzagaitik.



Romero ezkerrean, Euskadiko selekzio taldekideekin, Oviedoko Espainiako txapelketan.

San Prudentzio txapelketako finalak jokoan, astelehenean

Buruz buruko eta binakako txapel bana egongo da jokoan, maiatzaren 1ean, Traña-Matienako pilotalekuan



Traña-Matienako pilotalekuan jokatuko dituzte finalak.

PILOTA • J.D.

San Prudentzio pilota txapelketako finalak erabakita daude eta, urtero lez, maiatzaren 1ean jokatuko dituzte, datorren asteko astelehenean, hain zuzen ere. Jaialdia 17:00etan hasiko da. Bertan, buruz buruko finalean, Iglesiasek eta Uriartek neurtuko dituzte indarrak. Aurten, joko-sistema berezi bat probatzen dabilta buruz burukoan: 22 tantoko partidua izan beharrean, 10 tantoko jokoak jokatzen dituzte, kantxa osoa eta lau eta erdia tartekatuta. Bana berdintzen badute, tanteo hobea duenak erabakiko du hirugarren

jokoa zein diziplinatan jokatuko duten. Atxixiki pilota klubeko antolatzaileen artean irtendako

Iglesiasek eta Uriartek aurten probatu duten joko sisteman jokatuko dute finala

idea da eta praktikan ipintzea erabaki dute, proba lez. Bestalde, binakako txapelketa honako biko bi hauen artean lehiatuko dute: Artaraz eta Arroita Ibarlozaren eta Bullonen kontra.


Eskalada eta raftinga, Alpinoren apustua nerabeengana heltzeko

laz hasitako bidean sakonduz, Durangoko Alpino Tabira mendi klubak aurten ere hainbat ekintza antolatu du 12tik 17 urtera arteko nerabeengana heltzeko

MENDIA • J.D.

Maiatzaren 7an eskalada egingo dute Zuian (Araba), Oroko santutegiaren inguruko haitzetan, gidari profesionalen laguntzagaz. Ondoren, rappela ere egingo dute, sokak erabilia hormetatik bajatzen ikasteko. Izen-ematea Internet bidez egin daiteke, Alpinoren webgunean aurkitu daitekeen formularioaren bitartez; baita Alpinok Durangoko Goienkalean duen bulegoan ere, maiatzaren 2an, 19:00etatik 19:30era. Prezioa

20 euro da bazkideentzat, eta 50 euro bazkide ez direnentzat. Maiatzaren 12tik 14ra, raftinga eta arroilen jaitsiera egitera joango dira Ainsara (Aragoi). Zapatuan hiru orduko rafting saioa egingo dute eta domekan Ainsa inguruko arroila bat jaitsiko dute. Ekimen honetarako izen-ematea internetez edo maiatzaren 9an egin daiteke, 19:00etatik 19:30era, Alpinoren bulegoan. Asteburu-pasa 150 euro da bazkideentzat, eta 225 euro bazkide ez direnentzat



Irteeretariko bat Oroko santutegiaren inguruko eskalada gunera izango da.

Aitor Elordik buruz buruko finalerdien bila irtengo du, Jokin Altunaren kontra

PILOTA • J.D.

Orain hilabete eskas binakako txapel nagusia irabazi izanak ez dio biharamunik utzi Aitor Elordi pilotari mallabitarrari. Txapelketa amaitu bezain laster buruz buruko jokatzen hasi zen eta orain arte jokaturiko partidua guztiak irabazi ditu. Final-laurdenetako ligaxkan partidua jokatuko da eta bera irabazi egin du, Danel Elezkanoren kontra, partidua lehiatu batean: 22-19. Jokin Altuna ere egoera

Elordiren eta Altunaren arteko partidua domekan jokatuko da, Eibarko Astelena pilotalekuan

berdinean dago. Amezketerrak Unai Laso menderatu zuen joan zen asteburuan (22-9) eta sasoi betean dagoela erakutsi zuen. Hurrengo partidua elkarren kontra jokatuko dute Elordik eta Altunak. Domeka arratsaldean izango da, Astelena pilotalekuan. Mallabitik gertu, Eibarko pilotalekua aproposa da Elordiren zaleak bertaratzeko, eta, beste behin ere, aurrelari mallabitarrak aldamenean izango ditu zaleak. Domekako partidua irabazten duenak hanka eta erdi izango du finalerdietan.

Jokaldia

Zergatik du itxura hori errugbi baloiak?

Duen irudi obalak bakarra egiten du, ez bakarrik irudi bidez, baizik eta, gainera, lurraren kontrako botea irregularra eta iragarri ezina delako. Gaur egun bere itxura naturala bada ere, nondik dator?

Txerri-puxika da horren erruduna, txerritik datorren organo horrek eman zion obalatu itxura. Istorioaren arabera, William Webb Ellis-ek (kirolaren sortzailea) Errugbi izeneko hirian dagoen School zelaietan zehar korrika egiteko erabili zuen lehen baloia William Gilbertek egin zuen, inguru horretan bizi zen zapatari batek. Gilbertek bere lokala Saint Matthew 's kalean zuen, eta ikasleei oinetakoak salduz ateratzen zuen bizimodua.



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Txerri-puxika da baloiak duen formaren erruduna, txerritik datorren organo horrek eman zion obalatu itxura

Larruzko pilotak egiteaz arduratu zenean, bere diru-sarrerak handitu zitzakeela ohartu zen. Horrela, bera eta Richard Lindon, baloien manufakturan aitzindarietako bat, ikastetxeko hornitzaile bihurtu ziren.

1880 baino lehen, Ingalaterran larruzko baloien fabrikatzaile batzuk zeuden, prozesu bera erabiltzen zutenak, hain zuzen ere sortzailearen kopia zuzenak zirenak. Richard Lindon saiatu zen errugbi baloiaren asmakuntza eta bere forma obal bereizgarria eskatzen, baina, tamalez berarentzat,

ez zuen patentatu ez puxika ezta bonba ere.

1877an William Gilbert hil ondoren, familiaren negozioaren ardura bere iloba James Gilbertek hartu zuen. Eta haren ondorengoek Gilbert familiak markatutako ildo berari jarraitu zioten.

Gaur arte, errugbiak ez ditu bere hastapenak ahaztu. Horrela, Munduko Txapelketa bakoitzean emandako kopak "William Webb Ellis Cup" titulu du eta erabilitako baloiak oraindik ere Gilbert markakoak dira, gogoratzeko kirol honen sorrera.

Amaitzeko, eskertu nahi dut Martin Luciano Insaurrek errugbi adituak egindako lan eskerga, halako bitxikeriak zabaltzeagatik. Beragandik jaso dut oinarritzko informazioa zutaberako.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Botikak	
BARIKUA, 28 · 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 1 · 09:00-09:00
09:00-22:00	CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 29 · 09:00-09:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	MARTITZENA, 2 · 09:00-09:00
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
09:00-13:30	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	EGUAZTENA, 3 09:00-09:00
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	EGUENA, 4 · 09:00-09:00
09:00-14:00	BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 30 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZAZA
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENAK 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Lier (931. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.


Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Mara**! 5 urte egiten dozuz, jarraitu alai eta pozik! Asko maite zaitugu!



Zorionak, jatu! Jesukriston edaderako urte bi baino ez... puffff. Salsa ta batxata klaseko zure pretendienta danok mosu gozo bana bidaltzen deusugu... Paa! Seguru gauz gaur be txuleta hazurren bat aguen ibiliko dozule. Grrr pitxon!



Apirilaren 24an **Nuria Teirak** 42 urte egin ditu. Zorionak Carmenen eta Yosuren partez. Behar bezala ospatzea espero dugu.



Zorionak, **Nagore**, 39 udaberri! Egune disfrutatu izana espero dugu! Trago bat zor diguzu!



Zorionak, **Naia**! Maiatzaren 1ean 12 urte egingo dituzu; patxo haundi bat, laztana, etxeko danon partez!




Zorionak, **Luken**! Oso ondo ospatu zure bosgarren urtebetetzea, ta segi zure aurpegi alaiatz betil Zure aitxitxa, amama eta izekon partez.



Zorionak Berrizko **Gari Velerdaseri** eta Iruñan bizi den bere izeko **Erlea Velerdaseri**, euren hirugarren eta 42. urtegunean. Mosu bat, anaia Liher eta lehengusina Izaroren partez, eta loiba Gari eta Liher eta alaba Izaroren partez. Eta, batez ere, amama eta ama Maribiren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 14° / 19°	ASTELEHENA 10° / 17°	EGUAZTENA 8° / 26°
DOMEKA 12° / 18°	MARTITZENA 8° / 20°	EGUENA 14° / 26°



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



Hemen eta online

"Sanprudentzioetan musika ipintzea egundoko aukera da"

Andrea Cuestak musika ipiniko du, domekan, Traña plazan. DJ lanetan asko disfrutatzen duela dio abadiñarrak, eta publikoak berak beste disfrutatzea duela helburu



Andrea Cuesta Hermoso
DJ Kuku
ABADIÑO | 1999

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Andrea Cuestak, DJ Kuku-k, ibilbide laburra du DJ lez. Aurten hasi da musika emanaldiak egiten, eta domekan etxean arituko da, Traña-Matiena auzoan. Esne Beltza eta Gora Etorri taldeekin osatuko du kontzertua. Oso pozik dago eman dioten aukeragaz.

Sanprudentzioak plaza berezia dituzu. Urduri zaude?

Egundoko aukera da eta urduri nago, bai. Batez ere, kontuan hartuta Esne Beltza eta Gora Etorri ere egongo direla oholztan. Jende asko etorriko da eurak ikustera, eta hainbeste jenderen aurrean

musika ipintzeak presioa eragiten du. Era berean, etxean nago eta babestuta sentitzen naiz.

Aurten hasi zara musika ipintzen?

Sanprudentzioetako Gazte Eguna antolatzen genbiltzala sortu zen aukera. Egitarauan emakumearen presentzia bermatzeko lan egin dugu. Bada, emakumea eta deneriko musika ipiniko duen DJa gura genuen. Jai batzordeko norbait izatea erabaki genuen eta neure burua eskaini nuen. Orduan hasi nintzen praktikatzan, ikasten, laguntza eskatzen... Horren ostetik, Isiotu elkarteak musika ipintzeko aukera eman dit. San Blas egunean

ere ipini nuen musika, eta Durangoko Rugby tabernan.

Hainbeste jenderen aurrean musika ipintzeak presioa eragiten du. Era berean, babestuta sentitzen naiz

DJ munduan emakume gutxi dagoela esan daiteke?

DJrik ezagunenak gizonak dira, eta festibaletan ere gehiengoak dira. Hala ere, geroago eta ema-

kume gehiago dagoen sententzioa dut. Baina, egia esan, gutxi gara oraindino.

Baduzu erreferenterik?

Oso modu espontaneoan hasi nintzen. Badut DJ lagun bat, Asier, eta eskatu diodan bakoitzean laguntza osoa eman dit: materiala utzita, hainbat gauza irakatsita... Bera dut eredu momentu honetan. **Zein musika duzu zuk gustuko?** Denerik entzuten dudana arren, jaietan txosnetan ibiltzen naiz gehiago, orokorrean euskal musika entzuten delako gehiago. Hala ere, reggaetia, musika teknoa, rap erritmoak... denerik gustatzen zait. Nire egunerokoan oso presente dago musika, asko entzuten dut.

Deneriko musika entzuten dudana arren, jaietan txosnetan ibiltzen naiz gehiago, orokorrean euskal musika entzuten delako gehiago

Zer eskaini gura diozu publikori?

Aurrean dudana publiko osora ailegatzan ahalegintzen naiz. San Blas eguneko publikoa, adibidez, oso anitza zen: helduak, gazteak... Hori ikusita, musika egokitzen dut. Askok disfrutatzen dut, eta jendeak nik beste disfrutatzea dut helburu. **Musika ipini gura zenukeen toki bat?** Musika ipintzen aritzea afizio bat da, oso ondo pasatzen dut eta jaietara joateko proposamenak baditut, joango naiz. Baina ez dut argi etapa honek zenbat iraungo duen. Ez dut ofizio lez planteatzen. Traña-Matienan, etxean, musika ipintzea izan dut helburu, eta lortuko dut. Aukera galanta izan da eta horregaz geratzen naiz.

Abesti bat?

'Alboka' (Gozategi eta Etxepe). Musika ipintzerakoan, abesti klabea da.

Musika talde bat?

Ezin dut bat aukeratu. Baina aspaldian asko entzuten dudana taldea Brigade Loco da.

Zelan bizi dituzu sanprudentzioak?

Gehien disfrutatzen ditudan jaiak dira, etxean gaude, etxekoekin.

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Lentillak eta plantillak

Amaren esanetan, merkadillo batean hartu ninduten txikia nintzenen. Ez ziren konturatu, ordea, defektuz beteta nentorrela. Esaterako, miopia izugarri batez, errekorren Guinness liburuan sartzeko beste. Ez dut aurrekorik ere ikusten. Miope burkideok, topaketa bat egin behar dugu: plaza erdian lentillak kenduko ditugu, eta etxera osorik ailegatzan den lehenari 3Dko betaurreko batzuk emango dizkiogu opari. Ikustekoa izango da.

Animaliek, desabantaila orekatzeko, beste zentzumen batzuk indartzen dituzte. Baina, nire kasuan ez. Entzun ere gutxi egiten dut. Lehengoan, kontzertu batean, ezagun bati aitortu nion ez nuela eskumako belarritik ondo entzuten, eta hara! Berak ere ez, ezkerrekoetik. Solasaldi surrealista izan genuen. E? O!, A! E, e? O, a! Hori gutxi ez, eta hanka bat bestea baino luzeagoa daukat. Ondorioz, okertuta ibili izan naiz kaletik, zatar, narras, pauso anarkikoz. Eskerrak plantillak ipini dizkidaten; kalean norbait airoso ikusten baduzue ez da Billy Elliot, neu naiz, orain haizea lez nabil. Beste zenbait atalek ere ez dute beti nahi bezala funtzionatu, baina, aizue, hor ere hobetzen. Erremediorik ez duena despistatua izatearena da. Zer egingo diogu ba! Bizitza aspergarria, perfektuak direla uste duten horien.

Umorea da Hitzez eta Aho-tsez jaialdiko aurtengo gaia, eta Ane Labakak barikuan azaldu zuen transgresiorako zein borrokarako espazio izan daitekeela. Pareko harremantetik, eta gutaz barre egiten hasita. Gainera, beranduegi da merkadilloan erreklamazio orriak eskatzeko.

SAN ROKE BARRIA

ONGI ETORRI SAN ROKE BERRIRA

Eskuratu zure etxebizitza Durangon

IRTEERA-PREZIO BEREZIAK

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea, 1 Durango

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude Estás en tu casa www.sukia.com

2 logela
225.000€-tik
aurrera + BEZ

3 logela
295.000€-tik
aurrera + BEZ